

Elkarretaratzea: gure soldaten defentsan: osagarriak urtero eta garaiz!

✘ Irakasle-ikertzaileen soldaten defentsan, osagarrien deialdiak urtero deitu eta ordaintzeko exijitu dugu berriz ere, 2017ko osagarrien A-B tarteak eskatzeko deialdia onartzeko Gizarte Kontseiluak egindako bilkuraren aurrean.

Osagarrien deialdiak urtero egin behar dira, garaiz, eta modu argian, hori baita UPV/EHUko irakasleon soldatak osatu eta parekatzeko bide bakarra orain dagoen legeriaren arabera. Urtean bertan esleitu behar dira hurrengo urtariletik aurrera ebaluazio positiboek dagozkien tramuak kobratu ahal izateko. Eta ez dugu onartzen Eusko Jaurlaritzak gure kontura dirua aurrezte, UPV/EHUko Gobernu Batzordea eta Gizarte Kontseilua konplize izanda.

Horren aurrean guk ozen eta irmo diogu: **Gure soldaten defentsan: osagarriak urtero eta garaiz!**